



Ikastetxeetako zuzendari agurgarria,

Urtearen bukaera iristen eta Eguberritako oporraldia gerturaten ari den honetan, egindako lana eskertu nahi dizuet eta gure zorion agurrik beroena helarazi bai zuri eta baita zure ikastetxeko hezkuntza komunitate osoari. Merezitako atsedenaldiarekin batera, 2016 emankor eta zorionsua opa dizuet.

Idazki honetaz baliatu nahi dut zuokin 2015-2016 ikasturtearen hasieran Hezkuntza Sailburuordetzarekin egindako bileran esan genuenari jarraituz hartutako konpromiso batzuen berri partekatzea, eta bestetik 2015-2016 ikasturte osorako aurkeztu zen prestakuntza-ibilbideari eustea.

Dakizuenez, Heziberri 2020 planaren barneko bigarren proiektua osatzen duten Oinarrizko Derrigorrezko Hezkuntzarako Curriculum dekretuak aurki argitaratuko dira eta dekretuok erreferentziatzen hartuta, orduetik hona gelan garatzekoak diren gaiei eta tresnen sorkuntzari ekin diegu (ikus aurreko aurkezpenaren 5. diapositiba) gelako lan jardunak konpetentzien garapenean eragin dezan, eta ikasleen irteera profileko konpetentzien garapena ziurtatuta gera dadin.

Aldaketak egun egiten ari garenaren gaineko hausnarketa eskatzen du, norberaren egungo hezkuntza-jarduna sakonki behatzea eta hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideekin partekatzea eta modu eraikitzailean eta kolaboratzailean guztion jardunaz eztabaidatzea.

Horretarako, gaur egun egiten ari zarenaren gaineko hausnarketa egiteko, hala nahi den kasuetan unitate didaktiko berriak osatzeko, **Ikasmaterialak ebaluatzeko GIDA** zintzilikatuta dago Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren web-gunean: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-trebatuz/eu/>. Bide bera erabiliko da bai bigarren hiruhilekoan **EGOERAK lantzeko artxiboak**, eta bai hirugarren hiruhilekoan **etapako eta arlo edo ikasgaiko UNITATE didaktikoen ereduak** zuei helarazteko.

Bestetik, gutun honekin batera doakizue Sare-Hezkuntza programaren barruko oinarrizko prestakuntza bideratzeko gida. Gida honek EAE-ko hezkuntza sistemako irakasle ororentzat erreferentzia profila zehaztu nahi du. Horrela, profilean zehaztu diren azpikonpetentzia digitalak irakasleen-formazio ekintzetan aintzat hartuko direlakoan elkarbanatzen ditugu.

Egungo ikaskuntza prozesu irekietan konpetentzia digitalak garrantzi handia du. Hortaz, irakaslearen konpetentzia digitalaren markoa eraginkorra gerta dadin, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako webgune honetan bildurik daude: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-sare/eu> agertzen diren baliabideak erabiliko ditugu aipatu konpetentzia garatzen joateko. Aurkezten dizuegun ekimen hau, abiapuntu xumea besterik ez da, aurrerantzean, irakasleon komunitateak zein Berritzeguneetako sareak egindako ekarpenekin baliabideak ugaltzea eta hobetzea espero dugun.

Ekintzok irakasleon komunitatea digitalki konektatuta eta profesionalki gaurkotua bilakatzeko helburua dute. Prozesu guzti horietan funtsezko bidaideak izango dituzue zuen eskualdeetako Berritzeguneetako aholkulariak.

Jaso ezazue nire agurrik zintzoena eta ZORIONAK!

Gasteizen, 2015eko abenduaren 16an.

Begoña GARAMENDI IBARRA
HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARIA